

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Alkatearen eskumenak eskuordetzea

Ezkontza zibila egiteko espedientea jaso da, eta ezkongaien Legutioko udaletxean ezkondu nahi dute.

Kontuan hartu da Bake epaileek, alkateek edo eskuordetutako zinegotziek ezkontza zibilerako baimena emateari buruzko abenduaren 23ko 35/1994 Legeak 51.1. artikuluan eta Toki erakundearen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Arautegiak alkatearen eskumenak eskuordetzeari buruz 43. artikuluan xedatzen dutena.

Honen bitartez, eta nire eskumenekoak diren eginkizunak betez, hau ebazten dut:

Lehenengoa: Eskuordetza ematea Manuel Velasco Álvarez zinegotziari, 2025eko ekainaren 26an, Legutioko udaletxean, ezkontza zibila egin dezan.

Bigarrena: ALHAOn argitaratzea eta hurrengo osoko bilkuran jakinaraztea.

Legutio, 2025eko ekainaren 23a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTAZAR